KALAPUTXI

amnistia askatasuna



MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2019ko abendua 200. zenb.

Kiputz eta gipuzkoarrak


Azaroak 25, beste mundu bat posible delako

Abendua: lozorroan, gau onak eta egun berriak

KALAPUTXI 200. alea



ZORIONAK



Julian Ulacia Ruiz

Nire lanak balio bat duela sentitzen dut

Burumendi taldeko espeleologoak Mutrikuko barrenetan:


ZURETZAT
EDO HARENTZAT
AURPEGI EDO GORPUTZ,
TRATAMENDU EDO KOMESTIKO
OPARITU & IZAN
APAIN
apain
DOMINGO IBAIBARRIAGA, 3 BEHEA - 20830 MUTRIKU - 943 60 42 29 / 608 684 416 - APAIN@APAIN.NET


Etxea apaintzeko proiektuak
Altzariak
Sukaldeak
Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)
Gabon zorion eta urte berri on!
AB
AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos, S.A.
Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai 943 19 50 26
..... 626 61 13 92
Lon Apraiz 943 60 32 50
..... 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) .. 943 74 12 77
Ana Mandiola (Eibar) 943 82 05 33

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte 943 60 34 10
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal Euskaltegia 943 60 37 80
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
ANTON taxia 666 22 19 99
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 902 10 12 10
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 902 54 32 10
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87
Bikario etxea 943 60 39 88
Santa Catalina eleiza 943 60 32 00

Tiocfaidh ár lá

824. urtean, Nafarroako lehen erresuma Eneko Aritza buruzagi zela. 1512, Fernando Katolikoaren tropek Nafarroako erresuma erasotu, konkistatu eta anexionatu. Hegoaldeko erresuma behin betiko desagertu. Garai bateko euskaldunek hain preziatu zituzten foruek gure artean banaketa bat eragin zuten Karlisten eta Liberalen artean, eta lehen hauen porrotak foruen indarra gutxitzea ekarri zuen 1876an.

Espainian bi errepublika, bi dikatutura faxista, errepublika eta orain demokraziaz jantzitako gobernua. Betiko jendea betiko postuetan. Trantsizioan ezer gutxi aldatu zen espainiar gobernuan, Francoren itzalak bizirik dirau eta. Gure herrian bestalde, 1960ko hamarkada amaieratik 2003ra arte 30.000 atxilotatik gora eta 8.200 epaitu egon dira Euskal Herri aske baten alde borrokan.

Gaur egungo egoera asko lasaitu da. Erakundeak borroka armatua alde batera utzi zuen, bai eta armagabetzea gauzatu ere. Ezker Abertzaleak bere estrategia politikoa aldatu zuen beste bide batzuen bidez betiko helburu berdinak lortzeko asmotan.

Azken eragile honen estrategia aldaketak, eta erakunde armatuaren erabakiak ez dira denen gustuko izan eta horren harira beste behin ere liskarrak eta eztabaidak izan dira, azken neurri bezala beste talde/eragile politiko batzuk sortzera iritsi arte.

Nola liteke otsoa ate joka izanda beste eragile batzuk sortu eta gure artean eztabaidan ibiltzea? Nola, denok helburu berdinak izanda? Egoera ez dago duela 10 urte bezala, edo 80ko hamarkadan bezala, baina otsoa erne dago gutxien espero dugunean gure etxeko atea jotzeko.

Helburu bakan batzuk partekatzen ditugunon artean ezin da bereizketarik egin, horrela ez baitugu ezer lortuko. Gabonetan hutsik eta hotz dauden eserlekuak epeltzeko eta betetzeko modu bakarra herri batu baten irmotasuna erakutsiz lortuko baita. Batzuen eta besteen arteko elkarlanaren bidez, ezean amnistia eta Euskal Herri aske sozialista eta feminista baten sorrera utopia hutsa izango baita nire bilobentzat ere.

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

Zergatik hartzen dut parte batukada feministan?

Nire jardunean, maiz izan dut neure burua feminista gisa justifikatu behar izanaren sentsazioa, eta galdera honi erantzun behar izatean ere gertatu zait. Baina justifikatzeak on egingo badu, hona nire arrazoiak:

Justizia zein zaintzako etikan eta berdintasunezko harremanetan oinarritutako gizartea nahi dudalako, alfabetatu gabeko munduko 2/3ak emakumeak direlako, munduko pobreen arteko %70a emakumea delako, hautesleen erdia baino gehiago emakumeak garen honetan, ordezkari politiko nagusiak gizonak direlako, lanaldi partziala hartzen duten emakumeak oraindik ere %79,5ekoa delako, komunikabide batzuk modu denigrantean tratatzen jarraitzen gaituztelako, oraindik ere gizonek baino diru gutxiago irabazten dugulako, gauez etxera joateko beldurra izaten jarraitzen dugulako, ez dudalako nahi 4244 emakumek indarkeria sufritzea urtero (Emakundeko 2018ko datuak), iritzi, orientazio, lanbide, bizipen, adin anitzetako pertsonak biltzeko aukera ematen didalako, bizitza ulertzeko modu bat delako.

Eta bide honetan, legea dugu babes. Emakume garen heinean bizi dugun babesgabetasunari erantzuteko heldulekua eskaintzen digu legeak, eta desberdinkeriari aurre egiteko obligazioa dugula, betebeharra. 2004ko Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Neurrien Legea, 2005eko Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak, 2007ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eraginkorra lortzeko Lege Organikoak, 2018ko EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak, Hezkuntza Sailak onarturiko Heziberri 2020 Planaren Curriculum dekretuek, eta, azkenik, 2019an Hezkuntza Sailak lau ikasturterako ateratako EAEko Hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean izenekoa.

Horregatik irteten naiz kalera, ozenki aldarrikatzera; batzuetan alai, jendea dantzan jarriz, besteetan triste eta haserre, bidegabekeriak salatuz. Hau guztia da batukada, emakumeon aldarrikapen ozena espazio publikoan. Eta bide horretan, zenbat eta emakume gehiago eta anitzago, eta gure musika aberatsagoa izango da.

Mundua ez delako “den bezalakoa”, gu eraikitzen ari garelako egunero, gure esku dago bide berriak sortzea. Etorkizuneko belaunaldiak prestatu, kontzientziatu eta babestu behar ditugu, mundu berriak eraikitzea ere gure esku dagoelako; azken finean, beste mundu bat posible delako.

Amaia Zubeldia Rodríguez

Kaixo Kalaputxi:

Ni Goizeko Izarra Ikastolako 5. mailako ikasle bat naiz eta mezu honen bidez adierazi nahi dizuet, aldizkaria gure baserrira iristen denean, poz handia hartzen dudala.

Asko gustatzen zait mutrikuarron albisteak irakurtzea eta euskaraz gainera!

Beste 200 zenbaki edo gehiago ateratzea opa dizuet.

Besterik gabe, eskerrak emanez agurtzen zaituztet.

Naiara



*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira:
Kalaputxi, Barrenkalea 12 behea, 20830 Mutriku edo internet bidez, **kalaputxi2001@gmail.com**

Argitaratzailea **Karenka Komunikazio Elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus**
Web gunea: **www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia

KOBETA

ESPELEOLOGIAREN, FAUNAREN ETA HIDROGEOLOGIAREN ALTXORRA

Leize honek zer ezkutatzen duen aztertzen dabil Burumendi Espeleologia taldea. Mutrikuar askorentzat ezezaguna den leizea argitara azaleratuz.

Espeleologiak haitzulo eta lurpeko barrunbe naturalen jatorria eta formazioak aztertzen ditu, baita, bertako flora eta fauna ere. Jarduera espeleologikoa askotan oso lotuta dago gaur egun garrantzi handia hartzen ari den lurpeko ur-korronteen aurkikuntzekin. Zer esanik ez, aztarnategi arkeologikoekin.

Arno mendigunearen azterketa 1950etik aurrera Aranzadi Zientzia Elkarteak egin zuen. Urte haietan, Kobetako leizera jaitsi ziren, eta 100 metro lurraren azpitik aztertu zuten. Fermin Leizaola eta Carlos Galan bezalako ikertzaileak ibili ziren. Leizearen garapenaren bila ez ezik, azterlan hidrogeologiko eta faunistikoak ere egin zituzten.

1964-66 bitartean, haitzuloaren lurpeko bideak ezagutzeko saiakuntzak egin ziren. Aranzadi Zientzia Elkartekoek fluoreszeina bidezko zenbait kolorazio-proba egin zituzten, zorupean dagoen ura non azaleratzen den jakiteko, baina, emaitza negatiboa izan zuten; agian, modu desegokian egin zituztelako. 1975ean fluoreszeina isuri zen berriro. Deba ibaiaren ezkerraldean hiru iturburu aurkitu zituzten, Astigarribia eta Sasiola zubiaren artean.

Berrogei urte igaro ondoren, 1992an, Leizarpe Talde Espeleologikoko esploratzaileek berriro ekin zioten ikerketari, eta Kobetako leizea jaitsi zuten. Ekipamendua nabarmen hobetu eta aldatu zen.

Ikerketa horietan Leizarpeko espeleologoek barrunbearen garapen gehiago aurkitu zituzten, zailtasunak zailtasun aurrera egitea lortu baitzuten. Eta, zinta metrikoa erabiliz, eta altuerak begiz kalkulatuz, topografia egitea lortu zuten: aurreko ikertzaileek ikertutakoaren distantziak hobetuz. Galeria berriak aurkitu zituzten hondartza txikien gainean. Eta, ehunka metro aurrera egin ondoren, haustura eder batekin topo egin zuten: 40 metroko pareta lauak aurkitu zituzten: “Erraldoiak” izena eman zioten. Ordea, hor gelditu ziren egindako azterketak.

Hogei urte igaro behar izan dira Kobetako ikerketekin jarraitzeko, hau da, beste talde batek txanda hartzeko: Burumendi Espeleologia Taldeak hain zuzen ere.

Urtebete besterik ez da igaro *Burumendi Espeleologia Taldea* jaio zenetik, eta, azken urtean taldeko kideak gehitzen joan zaizkio taldea indartuz eta esperientzia zein ezagutzak gehituz.

Aurtengo otsailetik, sarrera asko egin dituzte Kobetara. Ustekabe bat baino gehiago ere izan dituzte: gainjarritako galeria berriak, zulo txikiak, hainbat metroko altueran dauden barrunbeen gaineko ezezagunak, eskalatzeko zain utzi dituzten leku berriak…

Teknologia berriak erabiliz, topografiatzeak duen garrantzia azpimarratuz, berehala iritsi ziren ustekabeak. Aranzadik neurtutako 100 m-ko sakonera zuen putzuak 130 m ditu iada. 500 m-ko topografia 2244 m-ra handitu da, Burumendi Espeleologia Taldeari esker. Kobalde, 575 metrorekin Arno mendiguneko barrunbe handiena zela uste bazen ere, gaur egun, Kobetak, orain arte baino 1224 metro gehiagorekin, gailentzen du.

Burumendi Espeleologia Taldeko kideek errespetu eta esker ona adierazi nahi diete duela hirurogei urte balentria hura izan eta aurrera egin zuten espeleologoei: momentuan zituzten oinarrizko baliabideak erabiliz egin baitzuten lan guztia.

Gaur egun, datu hauek ditugu: sarrerako ahoa, Aizkaizto mendiaren iparraldeko hegalean dagoena, eta egindako topoak hegoaldera garamatza, 550 metroko lerro zuzenean (Iturritza baserri gainaldean sartu eta Goienetxe baserri ondora garamatza).

Guztira, Arnoren karst-ean 56 barrunbe daude katalogatuta. Zifra horri gehitu behar zaizkio BETak aurkitu eta topografiatu dituen hamar barrunbe berri, eta ziur gaude horiek inoiz ez direla bisitatu. Segurtasun osoz, 2020 urtea urte emankorra izango da. Kobeta, Arnoren Karsteko barrunbe handiena izateaz gain, lehen mailako leizea izango da, eta merezi duen lekua hartuko du.

“Espeleologia jarduera liluragarria da, eta espeleologoak, geratzen diren azken esploratzaileak”.

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03


Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
egunero zabalik
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku



Kobeta leizeko Erraldoien sala

Argazkia: Josu Granja

Kobeta leizearen topografia



Erreferentzia bibliografikoak:

ESPAÑOL F. 1970. Un nuevo Bathysciinae de Guipúzcoa (Col. Catopidae). Revista Speleon 17, 59-62.

GALAN, C. 1992. Estudio hidrogeológico de los macizos de Arno e Izarraitz. S. C. Aranzadi.

TOBAJAS, A.M.; RODRIGUEZ, E.; VARGAS J. 2017. Bajo el suelo de Mutriku por el karst de Arno. Morkaikoko Leizarpe Espeleologia Taldea.

Burumendiko Espeleologia Taldea

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia



ARGAZKIAK

Azaroaren 24an "Goizeko Izarra" herriko antzerki taldeak bere azken 25 urteko historiaren kontakizun labur bat eraman zuen taula gainera. Egunerokotasun arruntaren ikuspegitik, hainbat obratan azaldutako antzerkilariak, euren jantzi dotoreekin, taulan azaleratu ziren obretan joakatutako rolaren aipu txiki bat eginez. Tartean, urte luzeetan antzeztutako emanaldien argazkiak proiektatu ziren.

Denok jabetzen gara edozein eginkizunetan, gehiago antzerki lanetan, atzeko lana derrigorrezkoa dela, eta zenbait pertsona giro lausoan mugitzen direla, inoiz fokoek argitu gabe. Horietako bat lortu zuten azalaraztea: Pakita. Jostorratza, haria, lisa tresnak..., zer ez? Guztia, aktoreak txukun azaltzeko jendaurrera. Ba, ahaleginak emaitza izan zuen, eta Pakita lehen aldiz agertu zen oholtzan hitzaren jabe. Ohi duen baino suabeago aritu zen bere pertsona antzezterakoan.

Eta azkeneko argazki bezala, emakumeengan etenik gabe gertatzen ari diren eraso eta bortxak salatzeko "Beldurrari aurre egin" antzerki motza eskaini zuten taula gainean. Arantxa Ugartek idatzitako lana, eta bera pertsonaia nagusiaren rolean. Hunkitu egin ziren ikusleak, batik bat, bukaeran, fokopeko argi-itzalak lagunduta, pertsonaia bortxatuak publikoari zuzenduta, hitz garratzekin, bota zuen deklamazio gogorrak eraginda.



SANTA ZEZILIA EGUNA

Ez dago batere garbi Santa Zeziliak musikarekin zer ikusirik zuen, baina, dirudienez, 200. urte inguruan martirioa jasan zuen emakumea 1594an kanonizatua izan zen, eta musikarien zaindari izendatu. Alde historikoak albo batera utzita, eta mundu guztian zabalduta dagoen ohiturari jarraituz, Mutrikun ere gogoratua izan zen Erromako Zezilia.

Azaroaren 18an egin zen lehen ekitaldia Musika Eskolaren atarian, bertan ari diren ikasle guztiek eta jubilatuen abesbatzak parte hartuz. Piano saio baten ondoren, Eskolaren ereserkia abestu zuten jubilatuek eta bertako gaztetxoen koruak euren bakarlarien ahots goxoekin. Guztia, jakina, banda txikiko instrumentuek, biolinak, trikitiak, zein txistulariek eta gitarrek lagunduta, Josean Pascual zuzendariaren batutapean.

Santa Zezilia egunez, azaroaren 22an, kalean zehar ibili ziren arratsaldez trikiti-joleak euren doinu alaiekin, eta ez ziren gutxiago izan txistulariak biribilketa eta fandangoz pintxopotea animatzen.

Larunbatean, Zabiel plazan eskaintzeko asmoa zegoen musika bandaren kontzertua, eguraldia tarteko, komentuko elizan ospatu zen, errepertorio bikainarekin, eta ohikoa den "Santa Zezilia" biribilketarekin amaituta. Eliza betetzen zuten entzuleen txalo artean, Josean Pascual zuzendariak Bandako partaide guztiei zabaldu zien entzuleen esker-ona.

ERREALAREN JARDUNALDIA GAZTEENENTZAT

Errealak Gipuzkoan zehar agertzen ari diren gazteak hobeto ezagutzearren jardunaldi ibiltariak egiten ditu aldiro. Aurtengoan Mutrikura ere helduko dira urtea amaitu aurretik, abenduaren 28an, larunbata, hain zuzen ere.

Jardunaldia San Miguel futbol zelaian izango da arratsaldeko lauretan hasita, baina arratsaldeko hiru eta erdietan futbol zelain egoteko eskatzen da.

Lehen taldeko jokalariek oporrak dituztela eta, lau kide Mutrikura etorriko direla aurreratu dute.

Aukera ederra futbolzale gazteentzat!



adats
ANDONILARREA
943 60 39 45 - Barrenkale 1



KONPONKETAK KOFRADIA ZAHARREAN

Mutrikuko Udaleko Garapen Sailak bultzatuta, Eusko Jaurlaritzaren Portuen zuzendaritzak kudeatzen duen Kofradia Zaharraren eraikuntzan dagoen Bentalekua eraberritzeko lehen fasea martxan jarri da. Horretarako, Aranzadi Zientzia Elkarteko lan talde bat, udal brigadaren laguntzarekin hasi zen ekinean azaroaren 29an.

2017ko otsailean gertatutako sutearen ondorioz, diotenez, egituraren zati bat eta eraikinaren lurraren zati bat kiskalita daude, eta mekanismoaren pieza batzuk beheko solairura erorita beste hondakinekin batera. Erdiko egitura da kalte handiena pairatu dutenetakoa, eta egur guztia zein bolak biltzen zituen inbutua desagertuta daude. Aulki batzuk egoera onean daude azaleko kalte batzuekin.

Bi fasetan egingo dira lanak: desmuntatzea eta berreraikitzea. Desmuntatu aurretik Aranzadikoen ardurapean jatorrizko egitura dokumentatuko da, ondoren desmuntatzeari ekingo zaio eta piezak egonkortzeari. Espero da hiru bat hilabete iraungo duela lan honek. Eraikitze fasea zein epetan egingo den ez dago zehazterik, hilabeteetako kontua izatea uste da.

Ia hiru urte daramagu sutea gertatu zenetik moila ere itxita. Ez al zegoen lanari lehenago heltzerik? Ez al da posible moila pertsonentzat erabilgarri izatea? Halako kalteak al ditu eraikuntzak? Nork erantzungo ote du.



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

1552ko abenduaren 3an hil zen Xabierreko Frantzisko Txinako irla baten, eta kondairak dio euskaraz mintzatu zela azken unean. Hori dela-eta, 1949an Eusko Ikaskuntzak izendatu zuen egun hori “Euskararen nazioarteko egun” bezala, eta 1995ean instituzionalizatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Inkestek diote 1991tik, lehen inkesta egin zenetik, 223.000 euskaldun gehiago gaudela, baina, hala ere, biztanle kopuruaren %55,2 erdaldun konbentzitu daudela oraindik, nahiz-eta euskara ikasteko aukerak asko zabaldu diren. Lan larria biztanle guztiak euskalduntzeko.

Eta euskaldun garenon artean, zein mailatan jartzen dugu gure hizkuntza? Zenbaitzuek euren kezkak azaldu dituzte, euskara batuaren eta euskalkien edo herriko hizkeren arteko kontrakotasuna berpiztu dela ikustean. Horren atzean zein hizkuntz ideologia dagoen galdetzen dute. Zer da euskara? Zertarako balio digu? Euskalkien edo herriko hizkeren defentsaren eta euskara estandarraren kontrako posturek zein zume izan dezakete atzean?

Euskara erabiltzaile askoren artean, badirudi, mugarri bezala hartzen dutela estandarra, ez dutela tresna egokitzat ikusten euren inguruko komunikaziorako, eta, beste maila bateko harremanetarako hor dituztela erdarak. Euren ideologian euskarak ez die eskubide guztiak eskaintzen?



2020 EGUTEGIA ESKURAGARRI

Urte bukaerarekin batera, Udalak 2020 urterako egutegia egin du eta San Tomas egunetik aurrera Turismo bulegoan izango da eskuragarri euro baten truke.

Antolatutako lehiaketan egutegia osatzeko epaimahaiak aukeratutako 12 argazkiak eta egindako erakusketan herritarrek aukeratutako azaleko argazkia herritarrek egindakoak dira, eta horietan guztietan herriko altxorrak erakusten dira.

Guztira, , 10 argazkilarik egindako 28 argazki aurkeztu dira lehiaketara.







NAGUSILAN ETA INSTITUTUA, SARITUAK

Bolondresen nazioarteko eguna zela aprobetxatuta, Donostiako Aquariumean egindako ekitaldian Zumaiako eta Mutrikuko Institutuetako ikasleak eta Nagusilan elkarteko bolondresak saritu dituzte Foru Aldundiak eta Surfrider Fundazioak.

Sariaren arrazoia, gure kostaldean metatutako zakarrak jasotzen egindako ahalegina eta lana. Gogoratu Mutrikuren kasuan Burumendiko hondartzaren inguruan egin zutela zakar-bilketa Institutuko ikasleek eta Nagusilanekoek.

Ingurumenaren zaintza hitzetatik ekintzetara eraman duten bi elkarteoi zorionak mutrikuar denon izenean.

ATZERRIKO IRAKASLEAK GUREAN

Abenduaren 1etik 5era Erasmus+ proiektuko gure kideak izan ditugu Mutrikun bisitan. Oso esperientzia interesgarri eta aberasgarria izan da arlo ezberdinetan.

Esan beharra dugu atzerriko irakasleak oso pozik ibili direla gure artean eta izugarri eskertu digutela beraiei egindako harrera.

Programa politaz gozatzeko aukera izan dute: euskararen eguna, elkarte batean afaria, olatu plantari zein Arrietakua jauregiari bisita, beste hainbat ekintzen artean. Eta hori guztia, bilera eta bilera artean, non gure esperientziak elkarbanatzeko eta gure zalantzei buruz hitzegiteko aukera izan dugun. Horretaz gain, Euskal Herriko historia apur bat ere ikasi dute eta bertako jan eta edanaz ere gozatu dute.





EBA IBARROLA eta IDOIA ARRILLAGA PALAZ TXAPELDUN

Aurtengoan Debako VIII. Emakumeen Pala txapelketa jokatu da eta iaz gertatu bezala, Eba Ibarrolak eta Idoia Arrillagak osatutako bikotea gertatu da txapeldun Iratxe eta Maite Barruetabeña ahaizpek osatutako bikotea 22-13 emaitzarekin garaituta. Iazkoan ere bikote biak heldu ziren finalera eta, orduan ere, Eba eta Idoia nagusi.

Iraileko hirugarren astean hasita, sailkapen fasean Euskal Herriko hainbat herritako 22 bikotek hartu dute parte txapelketan eta mutrikuarrak nagusi izan dira finalera bi bikote iritsita. Irabazleekin eta finalistekin batera, Mutrikuko Neska Palistak elkarteko beste hiru bikotek ere jokatu dute txapelketa.

Mutrikuko Neska Palisten elkartetik dei egiten diete herriko neska guztiei kirol honetan parte hartzera, kirola egiteaz gain lagunarte ederraz gozatzeko aukera ere izango dute eta.

GOTZON ARRANDEGIA
Gabon zoriontsu eta urte berri on!
Gotzon Eizagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

azaroak 25
beste mundu bat posible delako

Batzuetan gauzak ez dira zori hutsez gertatzen. Hainbat faktorek bat egiten dute eta konfluentzia moduko bat gertatzen da. Eta horrelako zerbait gertatu zaigu azken hilabetean. Institutua egiten dugun guztion artean aurrera eramandakoak jaso nahi izan ditugu artikulu honetan.

Garapenerako lankidetzaren euskal agentziaren laguntzarekin, eta Lumaltik eta Berdinak gara GKEen eskutik, gure ikasleekin lankidetzan aritzeko proiektu bati eman genion hasiera azaroko lehen astean. Lolita Chavez guatemaldar emakume aktibista izan genuen gure artean. Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen alde egindako lana aitortzeko Ignacio Ellacuría saria jaso duen emakume honek sei heriotz mehatxu jaso ditu, eta gure artean bizi da azken bi urteetan. Bere hitzetatik abiatuta, urtarrilean aurrera eramango dugun tailerra landuko dute ikasleek.

Emakume txiki, koloretsu, irribarretsu eta indartsu honek ahaztuko ez ditugun hainbat adierazpen egin zizkigun. Emakumeen kontrako indarkeria bortitzeko testuinguru batean, osasuntsu egotearen zeregina ezarri diote euren buruari Guatemalako emakumeek ("vamos a estar sanas"), bizi duten zapalkuntza hirukoitzari aurre egin ahal izateko (emakume izateagatik, indigena izateagatik eta pobrea izateagatik). Eta feminismorik gabeko irailtzarik egongo ez dela esan ondoren, euren aurpegia ezkutatzeko mandatua izan duten emakume hauek barrea eta irribarrea arma politiko gisa bizi dutela adierazi zigun, barreak duen indar eragilea azpimarratuz.

Arratsalde horretan bertan, "Otrans Guatemala" elkarteko Stacy Velásquez izan genuen gure artean. Guatemalako herrian emakume transgeneroek bizitako egoera larriaren berri eman zigun, bizitako bortizkeria salatuz eta egiten duten lanaren berri emanez. "Reinas de la noche" dokumental laburraren bitartez emakume hauek sufritutako merkatu sexuala azalarazi zigun, eta, testuinguru horretan, bereziki deigarria egin zitzaigun eman zigun "errespeto" hitzaren definizioa: "errespetoa bakea da".





Mutrikuko BHI Institutua

Hain urrun eta hain gertu. Bi emakume indartsu hauen testigantzak lezio bat izan dira guretzat. Eta eskaini diguten indarrari eutsiz, azaroaren 25eko egunaren antolaketari ekin diogu.

"Beldur barik" lehiaketan parte hartu dugu "Jauzi" (https://www.youtube.com) ikus-entzunezko lanarekin, eta Institutuko Tutoretza saio guztietan esku-hartzeak egin ditugu Hesigabezi ikasgaiko ikasleen eskutik. Batxilerreko ikasleek gidatutako saioak izango dira, eta kontzientziak astindu eta errealitatearen jabe izatea da asmoa.

Baina gelako esku hartzeetan soilik ez gara gelditu. Indarkeriaren aurkako keinu txiki, indartsu eta kutsagarria proposatu dugu: "Besarkada" (https://www.youtube.com).


Zoritxarrez indarrean dauden harremanak izateko modu bortitzak salatu ditugu patioan egin dugun ekintza baten bitartez, modu zuzen eta fisikoan adierazten den indarkeria eta baita hainbat modutan adierazten zaigun eta adierazten dugun indarkeria ere salatuz: indarkeria sinbolikoa, psikologikoa edo egiturazkoa.

Baina, kasu honetan, denon artean aurrera egiteko modua eskaini nahi izan dugu. Hitzetatik haratago, besarkada euskarri bilakatu nahi izan dugu. Beste harreman batzuk izateko moduak posible direlako. Beste mundu bat posible delako.

Julian Ulacia Ruiz

“Nire lanak balio bat duela sentitzen dut”

Ez da arrotza Julianentzat pilota eta zestagintza, atzetik datorkio. Hain zuzen ere, aitona Tomas pilotaria izatetik zestagilea izatera pasa zen. Aita Julianek ere bide bera jarraitu zuen, pilotaria eta zestagilea. Julian semeak lekukoa hartuta zestagintzan jarraitzen du, baina ez da pilotaria izan.



Beraz, ume-umetatik pilotari eta zestagintzari lotuta...

Ni jaiotzerako aitak bazuen edadea, eta nik EGB bukatzean jubilatzeko ez zitzaion asko falta eta ni berarekin lanean hastea nahi zuen, baina FP1en hasi nintzen, eta bi urteak bukatu ondoren, ez nuen gogorik FP2 egiteko. Momentu horretan iruditu zitzaidan hobeto moldatuko nintzela zestagintzan. Hamasei urte nituen eta aitari esan nionean poz ederra hartu zuen, izan ere, gure aitaren familiak lotura handia izan bai-tzuen pilota munduarekin. Munduan zehar ibilitakoak izan ziren aitona, aita, osaba Txomin, eta honen seme Javier. Eta amaren aldekoak ere bai; amonaren anaiak, Gregorio, Leocadio eta Blas Azkue, amaren anaia Alvaro eta Juan Mari lehengusua, eta baita Norberto eta Eduardo nire lehengusuak ere. Aitak 12 urterekin debutatu zuen Madrilen 1923an, eta hurrengo urtean, Piston, Batakon, Galenorekin... Habanara joan zen jokatzera, bere aita, gure aitona, han zestagile zegoela. Handik aurrera, munduan zehar ibili zen, gehienbat Ameriketan (Habana, Caracas, New York) eta baita Milan eta Bruselan. 35 urtera arte jokatzen jardun zuen eta utzi zuenean zestak egiteari ekin zion, jubilatu zenera arte. Aitona Tomasek erakutsi zien ofizioa aitari eta osaba Txomini, eta hauek aldi berean beren semeei. Aitak zestak egiteari utzi zionean, Bittor lehengusuarekin jardun nuen, eta handik denbora batera bakoitzak bere aldetik jotzea erabaki genuen.

Zestagile mordoa izango zen, bada, Mutrikun...

Gure aitona izan zen lehenengoa. Gero, osaba Txomin, nire aita Julian, Lekonde eta Egurbidetarrak... Cayo, Jane, Egaña, Zabala... orduan denentzat zegoen lana frontoi asko zeuden-eta martxan. Garai hartan Amerikako Estatu Batuetan hamalau frontoi zeuden zabalik; orain, aldiz, bakarra da ia urte osoan zabalik dagoena. Daniako frontoian bederatzi hilabetez jokatzen dute, eta Miamikoan bi hilabetez. Orduko kontuei helduz, hamalau frontoi eta bakoitzean berrogeita hamar bat pilotari; pentsa zenbatentzat egin behar zen.

Orduan denak zumezko zestak izango ziren, ez plastikozkoak...

Lehenago bai, eta orain ere gehienek nahiago izaten dute zumearekin ehundutakoak, plastikozkoak baino. Plastikoak

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es



daukan abantaila bakarra da konponketarik ez duela behar. Nik Mexikorako egiten ditut batzuk, zati bat plastikoarekin ehunduta eta beste guztia zumearekin. Mexikora joaten diren iparraldeko bi pilotariri egiten dizkiet, eta eurek ekartzen didate ehuntzeko plastikoa. Mexikoko giroa oso lehorra da maiatzean eta ekainean, eta hobeto konpontzen dira halakoekin.

Zure zestak munduan zehar dabiltza...

Gehienbat Floridako frontoirako egiten ditut. Hogeita hamasei pilotari daude Daniako frontoian, eta hamalauri egiten dizkiet zestak. Gehienak profesionalentzat dira, baina Markina, Mutriku, eta inguruan dabiltzan hainbat afizionaturi ere egiten dizkiet; baita Iparraldekoei ere. Gainera, profesionalak izandako batzuk ere badira bezeroen artean. Lanik ez zait sekula falta izan, ezta orain ere. Beti izan ditut goi mailako pilotariak bezeroen artean, eta horrek bidea zabaldu izan dit bezero berriak egiteko orduan. Oso eskertuta nago badakidalako egindako lana estimatzen dutela.

Lehengo modura egiten lan...

Lehengo modura eta lehengo erremintekin, aitak erabiltzen zituenekin. Eta lana egiteko modua ere ordukoa da. Behar ditudan materialak ere, zumea eta gaztaina, betiko lekutik ekartzen ditut, Astigarragatik, aitonaren eta aitaren hornitzaileak ere haiek baitziren, eta beraiekin jarraitzen dut. Saihetsak eta uztaia gaztainondotik ateratzen dira, ehuntzeko zumea erabiltzen da, eta eskularrua egiteko, larrua. Azken hau da makinaz egiten den gauza bakarra, beste dena eskuz egiten da. Eskularruak arrebak eta izebak josten dizkidate. Zesta bakoitza 25 bat ordutan ateratzen dut. Materiala lehengo aldean baino gutxiago landuta etortzen da eta denbora gehiago behar izaten dut lehenago baino.

Bizimodua ateratzeko lain...

Orduak sartu behar dira, ez dago dudarik. Artisau lana da gurea eta ezin da alderatu fabrika edo lantegi batekin; hemen ez dugu aparteko pagarik, baina gustuko lanean dihardut eta horrek asko errazten du dena. Zesta baten prezioa ez da merkea, baina kontuan izan behar da esku lana asko dela, eta materiala ere oso garestia dela. Nire lanaren barruan, bestalde, ondorengo konponketak ere egiten dizkiet nik egindako zestei.

Zesta bakoitzaren bizitza zenbatekoa...

Profesionalek, denboraldiko lauzpabost zesta erabiltzen dituzte. Pare bat hilabeteren ostean erretiratzen dituzte normalean. Afizionatuen artean, badago urtean zehar pare bat zesta erabiltzen duenik, baina normalean urtean batekin nahikoa izaten dute. Zesta berrian abiadura handiagoa hartzen du pilotak eta beste indar bat du, eta hori profesionalek kontuan izaten dute. Gainera, batzuk badaukate nori saldu erabilitakoak, eta horrela berria lehenago ateratzen dute.

Bezeroak hangoak eta hemengoak...


Floridan dabiltzan Erik Mendizabal, Goenaga, Goixerri, Zulaika, Leke, Ladutxe... baita Irastorza, Inza... iparraldekoak ere bai; eta hauez gain hemen jokatzen dutenak. Urtetan zehar jende ona izan dut: Mitxelena, Arregi, Cuvet, Enbil, Jon Arriaga... Iparraldekoak ere beti izan ditut bezeroen artean. Goi mailako pilotariak dituzunean haiek egiten dizute propagandarik onena.

Ofizioa desagertuko den beldurrik ba ote?

Floridako frontoia zabalik dagoen artean lasai nago, baina hura ixten bada ikusi egin beharko. Honetan dihardugunok ere ez gara asko, baina... Egunean egunekoari heldu behar!









Argazkiak: Aitor Ulacia Egaña

OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512


ALKOLEA
ARDOTEGIA
Jon Andoni Basurko Pagoaga
Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku
Edariak
eta gehiago...

KIPUTZ eta gipuzkoarrak

Zemendixaren 15ian liburu interesgarrixa aurkeztu zeuen Mutrikuko udaletxian Aranzadi eta EHUko paleontologuek: "Kiputz". Astigarrabixa aldian dauan leize-zulo baten izena da Kiputz. Zer dala-eta izen hori? Kiputz eta Gipuzkua izenetatik tiraka, pixka bat atzera egingo degu denboran eta hipotesitxo bat ere emango degu.

Kiputz aldeko kobazuloak

Azkoitxiko Munibe Taldekuek 1982.urtian topatu zeuen Kiputz inguruko lehelelengo kobazulua. Holakuetan egin ohi dan bezela, bertako toki-izena eman zixuen, *Kiputz I*. Baiña, batez ere *Kiputz IX* leizezulua izan da izen hori ezagun bihurtu doana.

2002.urtian topatu zeuen azken kobazulo hori, eta bertan giza-hazurrik ez dauan arren, sekulako aztarnategixa da paleontologuentzat, animalixen hazurrak-eta aztertzen ditxuenentzat.

Kobazulo bertikal hori tranpa naturala izan zan orain dala 20.000 urtetik orain dala 14.000 urtera bitartxian bizi ziran animalixa espezie batzuentzat: bisontiak, edur-oreiñak, lehoiak, hartzak...

Kiputz ingurua ez do iñongo bidekurutzetan, eta bertatik ez da pasatzen bide nagusirik. Astigarribixatik Mutrikurako bidiaren ezkerretara geratzen da, erdi ezkutuan.

Ahoz, gaur egun *"Kíputz"* izena da ezagunena, baiña bestelako aldaerak ere entzun leikez: *Kiputx, Giputxa...* Toki zabal samarra hartzen deu ahozko erabilleran, Agarreko haitzetik (Agarre baserrixaren atzetik) Galbaixorako kamiñuaren barreneraiño. *"Kiputz aldia"* esaten dixue inguruko baserritxarrek paraje horri. Aurrerago ikusiko degun bezala, G- letraz hasten da aldaerarik zaharrena: Giputz > Kiputz. Ahozko hizkeran askotan gertatzen da txistukarixen aldaketa hori (-tz > -tx), kasu hontan aspaldi-aspaldiko kontua ez bada ere.

Sasoi baten Agarre baserriko saillak ziran gehixenak, baiña gaur egun horrezaz gaiñera Astigarrabixako Gorixo baserrikuenak ere badoz bertan, baitxa Olaberrieta baillarako Erdikua baserrikuak ere.

Kiputzen solua zauan sakonian, hegaletan zelaixak eta gorago "mendixa" (txarak eta arbolak). Ardixak eruaten zitxuen bertara bedarra jatera.

Idatzizko lekukotasunak

Topatu degun erreferentzia dokumentalik zaharrena 1651. urtekua da. XIX. gizaldixan Agarre (Agirre-Zalbide izenez agertzen da dokumentaziuan) baserrixari lotutako lur-saillen salmenta eta herentzietan ere azaltzen zaku aztergai degun toponimua. Hona hemen aipamen batzuk:

- **Guipuzceco aristia** (1651): *"....las 12 cargas restantes en el trasmocho de robles y 8 [cargas] para cortar por el pie del puesto llamado guipúzceco aristia a real y medio la carga..."*. 'Giputzeko hariztia', beraz.
- **Quipucha** (1867, 1868): *"La heredad intitulada Quipucha de cabida de 245 estados"*.
- **Guipucha** (1905): *"Casería nombrada Aguirre-Zalbide (..) [pertenecidos:] La heredad intitulada "Guipucha", de cabida de 245 estados cuadrados, equivalente a 9 áreas y 33 centiáreas (...) la heredad inmediata a la anterior, conocida tambien con el nombre de "Guipucha", de cabida de 1.141 estados equivalentes a 43 areas y 47 centiáreas*.
- **Guipucha** (1940): *"Porción del terreno Guipucha, (...) que mide 10 áreas y 34 centiáreas"*.
- **Guipeitz** (1951). *"Guipeitz[sic]. Cereal, 9 áreas 33 centiáreas"*.
- **Guipeitz aldea** (1951). *"Guipeitz aldea[sic]. Argomal, 43 áreas 47 centiáreas"*.

Azken bi lekukotasun horrek tentu haundiz hartu bihar ditxugu, izan ere idazmakiñaz idatzitxako toki-izenak dira eta hutsez beteta doz.

Giputz apellidua edo ezizena

Toponimua izatiaz gaiñera, "Guipuz" abizena ere agertzen zaku Mutrikun. Dana dala, behin baiño ez degu dokumentatu apellidu hori: *"pagado a Domingo de Guipuz por sus grandes travajos de haver acudido a tomar el simiento de la cabeçera del muelle"* (1608. urtia).

Badirudi Domingo de Guipuz hori ez zala mutrikuarra; batetik, ez degulako abizen horretako beste iñoren lekukotasunik topatu, eta, bestetik, Gipuzkuan nekez topau zeikelako abizen/ezizen hori zoanik. Salbuespena Oñati aldian do, aparteko jaurerri edo eskualdia izan zalako, harik eta 1845.urtian Gipuzkua izatera pasatu zan arte.

Herritxarren bat jatorriz gipuzkuarra zala adierazten deu (ez) izen (edo gaitzizen) horrek, denborarekin abizen bezela finkatu arte. Oiñarrixan "Giputz-" elementua dakan abizen bat baiño gehixago topau geinke: *Guipuz, Guipuça, Guipuzeche/Guipucheche, Guipuztegui, Guipuzcoa...* Hona hemen Oñatiko adibide batzuk: Maria Guipuzeche (Oñati, 1552), Simón Guipucheche (Oñati, 1558), Domenja Guipuza (Oñati, 1561), Ursola Guipuz (Oñati, 1736). Beste honek berriz, Bizkaixan topatu ditxugu: Nicolas Guipuz (Gernika, 1501), Catalina Guipuz (Otxandio, 1557), Joanes Guipus (Arrigorriaga, 1572), Gueraci Guipuzcoa (Gerrikaitz, 1576), Pedro Guipuça (Zeberio, 1579), Matheo Guipustegui (Mungia, 1581), Gregorio Guipuça (Zeberio, 1588), Catalina Guipuscoana (1591, Lekeitio), Mari Guipuz (Orozko, 1597), Ana Guipuscoa (Bilbo-Begoña, 1603), Martin Guipuza (Amoroto, 1612), Maria Guipuztegui (Bilbo-Zazpi kaleak, 1622)...

Kontu jakiña da euskal abizen gehixenen oiñarrixan etxe-izenak, toponimuak eta ezizenak dozela. Itxura guztien arabera, *Giputz* horrekin ere halaixe gertatu zan. Hasiera baten ezizen bezela erabiliko zan, eta herri jakin baten bizi ziran gipuzkuarrei esango zixuen hola eta, denbora pasautakuan, zentzua galdu eta abizen bezala "fosilizatuko" zan. Gauza bera esan leike etxe-izen eta bestelako toponimuekin. Adibide batzuk: Kiputzeta lepoa (Okondo), Giputzena baserria (Atxondo, Arrieta, Muxika), Giputzarreta mugarria (Donemiliaga), Giputzuriko Santa Isabel ermita (Iruraiz-Gauna)...

Giputz(a) "jentiliziua"

Mutrikuko pertsonak "mutrikuarrak" dira; hori da jentilizio bat, Bizkaiko pertsona bat "bizkaitxarra" dan bezela. Horrek jentilizio normalak dira, izenetik datoz-eta (Izena>jentilizioa). Baiña, badira hiru jentilizio bide horri segitzen ez dixuenak: *nafar, aetz* eta *giputz*. Kasu horretan jentiliziua edo herritxarren izendapena herrixaren (edo lurraldiaren) izendapena baiño lehenagokua da: nafar > Nafarroa, aetz > Aezkoa, eta giputz > Gipuzkoa.

Giputzak eremu jakin baten bizi ziran, Gipuzkuan. Gerora, batzuek jatorrixan zakan zentzu neutrua aldatu badixue ere, "giputz(a)" forma Gipuzkoan bizi diranen jentiliziua baiño ez da, "gipuzkoarr(a)" hain zuzen ere.

Bizkaixa eta Gipuzkuaren arteko mugia

Baiña, zer dala-eta agertzen da "Giputz/Kiputz" izena Mutrikun? Ez al do paraje hori Gipuzkuan?

Bi azalpen euki leikez horre; bata, historikua eta, bestia, linguistikua. Ikusi daiguzan bixak banan-banan.

Historialari askok aspalditik seiñalatu deue, antziñako iturrixen arabera, Deba itsasadarretik mendebaldera karistiar leiñukuak bizi zirala eta leste edo ekialdera barduliarrak:

"Y de los várdulos [...], sabemos que en el siglo II d. de J.C. ocupaban próximamente el territorio guipuzcoano que va desde el valle de Oyarzun, que pertenecía a los vascones, hasta el rió Deva, que era frontera con los caristios,..." (Caro Baroja, 1942).

"Ptolomeo sitúa a lo caristios entre los várdulos y los autrigones, llegando a la desembocadura del Deva; por la costa se extenderían entre el Deva y el Nervión" (Segura Munguía, 1997).

Aurrerago, Eleizak ere aspaldiko banaketa harek oiñarri hartuta osatu zitxuan eleizbarrutixak. Mutriku bi elizbarrutitan geratu zan banatuta: Astigarrabixa eta Azpilgueta baillarak Kalahorrako eleizbarrutixan eta herrigunia eta gaiñontzeko baillarak Iruñekuan.

Mutrikuko Kiputz ingurua Astigarrabixa baillaran do, ixaixa Olaberrieta baillararekin muga egitxen. Muga horrek, udal barrukua izan arren, sustrai sakonak ditxu, izan ere Astigarrabixa auzuak Bizkaixarekin eta Deba Arroko herri gehixenekin bat egitxen zoan, azken baten Kalahorrako elizbarrutixan zaualako.

"Mutriku" izena baiño lehenago dokumentatzen da "Astigarribia", 1081. urtian: *"De monasterio Sancti Andree Stigarivia inter Bizcahia et Ipuzcuam sito". 1108.urteko beste aipamen hau ere oso argigarrixa da: "...fuit consecrata ecclesia Sancti Andree apostoli in Stigarrivia, in fine Vizcahie..."*.

Astigarrabixa, beraz, Bizkaixaren amaieran zauan, edo Bizkaixa eta Gipuzkuaren artian. Esan degun bezala, sasoi baten karistiarren eremukua ei zan baillara hori (eta itxura danez, baitxa Mutrikuko gaiñerako lurrak ere), eta gero, eleizari dagokixonez, bizkaitxarrekin batera jardun zoan.

Azalpen edo argudio historikuez gaiñera, edo, hobeto esan, horren osagarri, badira hizkuntza arloko elementu aitxagarriak.

Gipuzkera ala bizkaiera?

Hizkuntzalari askok (M. Larramendik, L.L. Bonapartek, R.M. Azkuek...) Mutrikuko euskeria gipuzkera edo erdialdekotzat jo izan deue.

Leiñuen banaketak edo eleizbarrutiak giza-taldien barruko zeozelako batasun baten adierazgarri dira, baitxa hizkuntzari dagokixonez ere: *"La frontera de várdulos y caristios puede corresponder a la que tienen en la actualidad el dialecto guipuzcoano y el vizcaíno, por lo menos en su parte norte"* (Caro Baroja 1942).


Koldo Zuazok tarteko hizkeratzat dauka Mutrikun hitz egitxen dana, mendebaldeko hizkeretan agertu ohi diran ezaugarri asko dakazelako: *"[...] ezin esan Debabarrenean mendebaleko euskara egiten denik, baina ezta euskara giputz garbia denik ere: Debabarrenekoa tarteko hizkeratzat jotzea dirudi aukera zuzena"* (Zuazo, 2000).

Ondorixuak

Hipotesi bezela, beraz, *Kiputz(a)/Giputz(a)* izenak gipuzkuarrak bizi ziran eremua (edo gipuzkuarren baten jabetza) adierazi zeiken sasoi baten, horren indargarri ditxugu inguru hori Bizkaixan kokatzen ditxuen antziñateko eta Erdi Aroko erreferentzia dokumentalak. Beste aukera bat izan leike gipuzkeraz hitz egitxen zeuenei erreferentzia egitxeko sortu izana. Konparaziotarako, sasoi baten behintzat, Bergara, Oñati, Arrasate eta Eibarko denda batzuei "kiputzekenua(k)" esaten zixuen, bertako dendarixek gipuzkeraz egitxen zeuelako.

Josu Larrañaga Arrieta





ABENDUA

«Oi neguko arratsak, supazter xokoan,
Xixtuka ari dela haizea kanpoan,
Atheak hetsirikan, suaren ondoan,
Elgarri kontra oro, sukalde beroan!».

J.B.



LOZORROAN,

Natura lozorroan sartu arren, badatoz Gabonak (gau onak) eta Eguberriak (egun berriak). Uda girorik ez dago, baina jairik ezta faltako. Laster, gainera, uraren ziklo berria hasiko da berriz; elurTEaren ostean, urTEa (urTE berria edo uraren sasoi/ziklo berria).

LOZORROAN

Azkenean ere iritsi zaigu 12. (h)ilargi betea (hilaren 12an), eta beraz, 12. hilabetea; urtearen azken hatsa eta artikulu-sorta honen azken urratsa. Agur esateko unea. Abenduarekin eta neguarekin batera sartuko da natura (eta baita artikulu-egile xume hau ere) lozorroan, zuhaitz biluziak ikustea besterik ez dago. Badira zenbait olerkari ezagun, negua heriotzarekin lotu izan dutenak; sinbolikoki bada ere, naturaren heriotzarekin.

Hileroko egiturari jarraituta, ordea, hona hemen hile honi deitzeko hainbat era: abendua (B,G,N), lotazila, neguila/negila (Z), gabonila (B), hotzaroa, beltzilla…

- Abendua: latinezko “adventum” hitzetik omen dator (hau da, “etorrera”), “kristoren etorrerari” egiten omen dio erreferentzia.
- Lotazila (lotan+hazia+hila): natura edota hazia lotan dagoen hilabetea.
- Neguila (negu+hila): hilabete honetan sartzen garelako neguan.
- Gabonila (gabon+hila): Gabonak ospatzen diren hilabetea delako.
- Hotzaroa (hotz+aroa): hotz egiten duen garaia/aroa delako.
- Beltzila (beltz+hila): hilabete beltzetik dator; ziur asko sasoi honetako eguraldiari egingo dio erreferentzia.

Mutrikun, aldiz, abendua eta gabonilla erabili izan dira.

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

GAU ONAK ETA EGUN BERRIAK

GAU ONAK ETA EGUN BERRIAK

Gabonak edota Eguberriak datoz. Beharbada, gaur egun, (hainbeste sinestun izan ez arren) sinesmenetik eta erostetik (kontsumismotik) gehiegi duten egunak. Argiak, zuhaitzak, jaiotzak, eta batez ere, saltoki handietara egindako prozesioak datozkit gogora. "Erosi, erosi..." belarri atzean etenik ez duen ahotsa. Telebistan ere, lurrinak, jostailuak... begi-niniak etengabe zulatzen. Mezua argia da: "Erosi!".

Familiako kideak supazter xokoan biltzen ziren garaiak... haiek bai garaiak haiek! Telebistarik ez komunikazioa eteteko, ahozko tradizioa puntu gorenean belaunaldiz belaunaldi naturaltasunez transmititzen, baloreak...

Gaur egun, ordea... zenbat aldiz pentsatu izan dudan, Gabon gauean telebista itzali eta telefono guztiak kutxa batean sartzeak zenbat erraztu eta indartuko lukeen elkartutakoon harremana.

Gabonak, sineskerak sineskera, familia elkartzeko aitzakia polita dira. Eta hauxe, garai honetan askotan izandako elkarrizketa:

- Olentzerori zer eskatuko diozu?
- Ez dakit ba... ez dut ezer behar.

Hori izaten zen askotan nire erantzuna (hala ere, izebak beti liburuak oparitu izan dizkit; irakurzaletasuna eta gure kulturarenganako garra piztu didatenak, ziur asko). Niretzat oparia familia osoa supazter xokoan kontu-k@ntari elkartzea da, eta batez ere, urtero afalostean egiten dugun familiako "kontzertutxoa". Gure aita gitarra, bateria, pianoa, txistua... jotzen; osaba akordeoia, pianoa... jotzen; beste osaba inoiz klarinetea jotzen; arreba gitarrarekin; ama, izebak eta lehengusu-lehengusinak abesten; eta ni ere gitarra edo bateria jotzen. Gau magikoa 24koa. Beste ezerengatik aldatuko ez nukeen horietakoa. Hori dira niretzat Gabonak, hori oparirik onena. Familiaren beroan, euskal kantak abestea, eta batzuetan, baita zenbait euskal dantza egitea ere. Ez dut besterik behar. Horretan sinesten dut.

Eguberriak, izatez, ez du jesusen jaiotza adierazten (hori kristautasunak ekarritakoa da), neguko solstizioa baizik; hau da, eguberri egunarekin hasten dira berriz egunak luzatzen. Gure arbasoek argiaren jaia ospatzen zuten garai honetan. Ekainean hasten dira egunak laburtzen; abenduan, luzatzen.

Oraingoan ere sua dugu protagonista, gure arbasoek 24ko gauean etxeko tximinian enbor handi berezi bat erretzen baitzuten; eguzki berriaren jaiotza ospatzeko erritoa (subilaroa ere deitua). Egun, mantentzen da zenbait etxetan.

Bukatzeko, gogoratu gu ohartu gabe zenbat jakintza eta bitxikeri dagoen egunero geure aurrean dagoen horretan; abizenek, toki izenek, hilabeteen izenek... zenbat erakusten diguten gure euskal lur honi eta ohiturei buruz.

"Antza denez, denborari mugak jartzerakoan eta muga horiei izenak jartzerakoan, zerura begiratu zuten euskaldunek, eta zeruan ikusten ziren gauzen artean ilargian jarri zuten arreta. 29 egunetik behin, ez zen ilargirik ikusten. Ematen zuen hil egiten zela, beraz astro horrek balio izan zien lehenengo epe mugatuak ezartzeko. Hilabeteen izena bera ere, "hila", ilargiaren "hileta" hortik etorriko litzateke".

Eta orain, eman ongietorria azken jentila omen den Olentzerori; eta bide batez, oles aroari!

Ibon Aginaga Imaz

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

BARE - BARE
gosariak, pintxoak, bokatak...
GABON ZORION eta URTE BERRI ON!

ZILEGI DELAKO

2020 urte berriaren aurrez-aurre gaude eta karenka! begiratzen diogu, harro egin dugunarekin zintzo egina baitago. Sinistuta egindakoa beharrezkoa dela, zuzen gabiltza amnistiaren bidean.

Badira urte batzuk jada Amnistiaren aldeko mugimendua berrantolatu genuenetik, oztopoen gainetik, akatsak akats, zintzo eta Estatu espainolaren kontraesanak areagotu egin diren honetan, argi eta garbi ikusten dugu, egiten genituen analisi politikoak zuzenak izateaz gain, gaur gaurkoak direla.



Amnistia osoaren emaitzak, errepresaliatu politikoen askatasuna bermatzeaz gain, beraiek borrokara bultzatu zituzten arrazoien konponketa barnebiltzen du, kartzelak berriz borrokalariz ez betetzeko berme bakarra da. Mugimendua esklusiboki amnistiaren aldeko errepresioaren aurkako borrokan mantendu da, horixe baita gure zeregina. Une honetan ezinbestekotzat dugu despolitizazio prozesuari euste-horma jartzea; gatazkaren konponketa parametro politikoetan kokatzea da bidea konponketa bakarra, arazo politikoa baita eta honek AMNISTIA du izen eta abizen.

Txalotzen ditugu eta babes osoa erakutsi nahi diegu gure mugimendutik, estatu eta mugimendu errepresiboen aurka lan egiten dutenei. Gure elkartasun guztia adierazi nahi diegu azken hilabeteetan espetxeratuak izan diren militante eta herritarrei, errepresioaren jomugan daudenei, Nekane Txapartegi kasu, torturatua izan zena eta atxilotze agindu berriekin mehatxatzen dutena, espetxeetan preso eta egoera ez humanoan mantentzen dituzten preso gaixo larriak. Inposatutako espetxealdia, beteak dituzten preso politikoen berehalako askatasuna exijitzen dugu. Ertzaintzaren ezinbesteko laguntzaz epailearen aurrera eraman eta espetxearen bidean egon ahal diren herritarrei babesa erakutsi, burgesiaren eskutik lan egiten duen poliziak lagunduta, kaleratuak izan diren langileei elkartasuna adierazi. Euskal preso POLITIKO oro, GUDARIAK DIRELAKO.

Honekin batera, Katalunian ematen ari den salbuespen egoeraren eraginez atxilotuak eta espetxeratuak izaten ari diren manifestari guztien berehalako askatasuna exijitzen dugu. Horrez gain, setio poliziala lehen lerroan borrokatzen ari diren manifestariei gure babesa helarazi nahi diegu, baita inpunitate osoz diharduen faxismoari erantzuten ari diren guztiei ere. Txalotzekoa da burgesiaren morroien eta talde faxisten aurka Kataluniako herri eta gazte langileak erakusten ari diren borrokarako adore eta ausardia, baita estatuko beste zenbait lurraldetan ematen ari den erantzuna ere. Kataluniari laguntzeko/elkartasuna adierazteko erarik onena hemen eta orain EHren askatasunaren alde borrokatzea dela argi dugu.

Gaur, non Katalunia zein beste herrialde batzuetan, gatazka politikoei irtenbide bakarra izanen den amnistiaren aldarria zabaltzen ari den honetan, Euskal Herrian, hain kolpatua, kriminalizatua eta desitxuratua izaten ari da. Orainaren eta geroaren aldeko apustu bat da, ez etsipenean jaustearena. Horregatik Amnistiaren aldarrikapena bukaeraraino eraman beharrekoa da.

Gure lana da! Zuen lana da! Guztiona! Ez dugu eskubiderik herri honen alde dena emateko gai izan diren seme-alaba zintzoenak, espetxeetan usteltzen utzi eta zapaltzaileek eraikitako legedian oinarritzen den sasi demokrazian oinarrituz eskaintzen diguten bide txinurrak aprobetxatu, egin dezagun dakiguna, herri honek beti erakutsi diguna, lan eta lan Euskal Herri aske eta sozialista batengatik. Borrokatzea zilegi delako! AMNISTIA

Borrokatzeak merezi duelako.

Bukatze aldea besarkada estu bana gure senide eta lagunei, bereziki eta hurbiltasunez, Orkatz, Lexuri, Agurtzane, Irantzu eta Patxi.

MUTRIKUKO AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

MOTXILADUN UMEAK, NOIZ ARTE?

Euskal preso politikoen seme alabak

Gaur egun, euskal preso politikoen 113 umek ama, aita edo biak dituzte kartzelan. Horietatik bederatzik guraso biak dituzte kartzelan, seik ama, laurogeita hamabostek aita eta hiru kartzelan bizi dira amarekin.

Zein da beraien errealitatea?

Frantziako estatuan, bisita-baimenak desberdinak dira presoaren egoeraren arabera. Presoa epaiketaren zain badago, 30-45 minututako bisitak izan ditzake, gela oso txikietan; presoa kondenatua badago, bisitak luzeagoak izaten dira eta espazioak handiagoak.

Espainiako estatuan, umearen adinaren arabera aldatzen da bisita-erregimena. Haurrak 10 urte arte, hilean behin 3 eta 6 ordu arteko bizikidetzako aurrez aurreko bisitaldiak izan ditzakete, baina behin 11 urte betetzen dituztenean, bisita denbora murrizten da, inolako zentzurik ez duen arren.

Bisita egoera berezi horiekin batera, asteroko 40 minutuko bisita arruntak izan ditzakete, baina kristal bat tartean dutela, kontaktu fisikorik gabe, elkarren ahotsa ere interfono batetik entzunez.

Haur eta nerabeen ziurtasun emozionala oinarrizko beharra den arren, guraso presoei aplikatzen zaizkien bisita-arauek ziurtasun hori bermatzea galarazten dute, eta haur eta nerabe horien garapenean arazo gehiago sor ditzakete.

Telefonoz, astean 5 minututako 8 dei egin ditzakete euskal presoek. Aurretik baimendutako zenbakietara beti, eta 5 minutuak pasatzean automatikoki mozten dira. Gainerako presoek 10 dei egiteko aukera dute.

Komunikazio guztiak grabatu egiten dira eta eskutitzak fotokopiatu.

Umeekin jolasteko espazioak txikiak dira eta Frantziako Fresneseko kartzelan adibidez, Nazioarteko Kartzeletako Behatokiak arratoi plaga salatu zuen, espazio horien garbitasun falta agerian utziz.

Gurasoak ikusteko egin behar dituzten joan-etorriei dagokienez, Chatereaux-en preso dagoen aitarekin hilean 2 ordu egoteko, hiru urteko alabak 12 orduko joan-etorria egin behar du; urtean egun eta erdi elkarrekin egoteko 144 ordu egin behar ditu kotxez.


Algecirasen daukaten ama hilean behin ordu eta erdiz bisitatzeko, 2.200 km egiten ditu nerabe batek joan etorrian; urtean 18 orduz elkarrekin egoteko 240 orduko bidaiak

Aurrez aipatutako ume guzti horietatik bi adibide besterik ez.

Egoera hau salatzeko eta euskal preso eta iheslari guztiei elkartasuna adierazteko ekitaldi hauek izango ditugu:

- **Abenduaren 21ean**, Santo Tomas azokan, material salmenta eta elkarretaratzea, Goiko plazan 13:00etan.
- **Abenduaren 24an**, Olentzerori kantuan lagunduz, kalejira Zubixatik 19:00etan.
- **Abenduaren 27an**, urteko azken ostiraleko elkarretaratzea, Beheko plazan 19:00etan
- **Abenduaren 31n**, Giza katea goiko plazatik, 19:00etan. Ondoren Preso eta iheslari politikoen alde topa egingo da Beheko plazan.
- **Urtarrilaren 3an**, ohiko elkarretaratzea Goiko plazan 19.00etan.
- **Urtarrilaren 11n**, manifestazio nazionala, denok Bilbora!

MUTRIKUKO PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO MUGIMENDUA



ZORIONAGURRAKZORIONAGUR



ANER

Irailian izan zan urtebetetzia baina Kalaputxin hegoetan geratu zan... Zorionak familia guztiaren partez, batez ere Danelen partez!!



ENETZ

Gure etxeko gerlariari pillo bat muxu eta besarkada bere hirugarren urtebetetzean, izeko Haizea, osaba Eritz, amona Itzi eta aitxona Joxe Angelek.



MALEN eta NORA

Batek abendua, bestiak urtarrila, hauxera opari pila!!!
Zorioon on onak Malen eta Nora!!



GAIZKA eta ENAITZ

Zorionak bikote!



IBAI

Zorionak abenduaren 3an 32 urte bete duzulako! Enaitz, Eber, Aner, Adei eta Danelek mila muxu!



JARE

Zorionak Jare! Etxeko sorgin txikixak 2 urte haundi! Muxu haundi bat etxekuen partez!



ENETZ

Zorionak! 3 urte haundi!
Muso pillo bat atxona eta auman partez!



MADDI

Urtarrilaren 18an, gure neska abilai bere urtebetetzean MAITTE-MAITTE danok.



ZORIONTZEKO BIDEAK

kalaputxi2001@gmail.com
whatsapp 635748393





RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Argazki Zaharrak



Krossean, 1960ko hamarkada hasieran
Juan Mari Garagarza,
Carlos Barrenetxea,Jabier Manterola,
Valentin Ulazia eta Juan Miguez



Krossean, 1960ko hamarkada hasieran
Jose Juan Lekube
eta Juan Miguez

Argazki zaharrak erakutsi nahi?
>> kalaputxi2001@gmail.com
>> wathsapp: 635748393
>> Ansorregi zapata denda





ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

ABENDUA		URTARRILA	
20tik 22ra	Hiart Burgoa	1 eta 2	Hiart Burgoa
zapatu (21) goizean, Lon Apraiz		3tik 5era	Amaia Zalduegi
23tik 26ra	Lasuen Elezgarai	zapatu (4) goizean, Lon Apraiz	
27tik 29ra	Lon Apraiz	6tik 9ra	Lon Apraiz
30 eta31	Hiart Burgoa	10etik 12ra	Lasuen Elezgarai
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		13tik 16ra	Amaia Zalduegi
Elgoibar		17tik 19ra	Hiart Burgoa
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		zapatu (18) goizean, Lasuen Elezgarai	
Mercedes **ZUMETA** 943 82 04 98		20tik 23ra	Lasuen Elezgarai
San Agustin kalea 5, Eibar		24tik 26ra	Lon Apraiz

##AGENDA##

abenduak 21, zapatua
Goizean, Santo Tomas azoka
22:30 Kontzertua Gaztetxian, MRK GAUA

abenduak 27, barixakua
19:00 Kulturaren gala, Udaletxean

abenduak 28, zapatua
19:00 eta 20:00etan, Zabiel kultur etxean
Mutriku FT - 75. urteurrena
Dokumental emanaldia
22:30 Kontzertua Gaztetxian, KOBAN

abenduak 31, martitzena
Eguerdian, Sal Silbestre lasterketa herrikoia.

urtarrilak 1, eguaztena
ARNORA IGOERA
Arnoko txabolan Burumendi Mendi Elkarteak txorixo eta salda banatuko ditu.

urtarrilak 19, domeka
NAZARENO EGUNA
Komenduko mezaren aurretik, Bandaren kalejira
Eguerdian, Bandaren Kontzertua

MENDI IRTEERAK

urtarrilak 1
Urte berrian ARNOra igoera

urtarrilak 12
La Arena - SERANTES (452 m.) - La Arena

otsailak 9
Durango - BELATXIKIETA (661 m.) - Zornotza

apirilak 5
Ibarra - ORISOL (1.132 m.)- Ibarra

maiatzak 10
Otzaurte - ARATZ (1.445 m.) - Otzaurte

ekainak 14
Gorostapolo - HAUZA (1.304 m.) - Izpegiko lepoa

uztailak 3, 4 eta 5
PIRINEOAK - Tendeñera mendilerroa

irailak 13
Jarla eta Carla

urriak 18
BIANDITZ (844 m.) - Artikutza inguruak

azaroak 15
Lagran - SAN TIRSO (1333 m.)

abenduak 13
Deba

Burumendi Mendi Elkartea

Zure Elkartearen ekitaldiren bat edota deialdiren bat ***Kalaputxi***n erakutsi nahi baduzu,

idatzi hauetako batera:

kalaputxi2001@gmail.com

whatsappa 635748393

otsaileko aldizkarian argitaratzeko **urtarrilaren 10erako** bidali zuen lanak



Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Uzuri RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

EROSI BERTAN ZUK EGITEN DUZU MUTRIKU

bertanmutriku.com

bertan
mutrikuko merkatarien elkartea

facebook.com/BertanMutriku

bertan · Mutrikuko Udala · EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.

Eguberri zoriontsu eta Urte Berri on



URTARRILEAN MATRIKULA ZABALIK!

DEBABE Udal Euskaltegien mankomunitatea
LUARDO ETXEA
Sabanika aldapa 4 - MUTRIKU
943 60 30 94 - udaleuskaltegia.mutriku@debabe.eus



KANTAURIKO ANTXOA

LOREA Gourmet

DESDE 1867

HEGALUZEA OLIBA OLIOTAN





ANTXOA OLIBA OLIOTAN



HEGALUZEA